



EGIA KULTUR ETXEA

Egia Kultur Etxea, hiriko arte eszenikoen erreferentea, topagune kultural nabarmena da auzoan, eta adinez nagusi bihurtu zen urtean, 2015ean alegia, ere hala izan zen.

Azpimarratzekoak dira elkarte eta talde ezberdinekin lankidetzan burutu ziren hainbat proiektu eta jarduera. Horrela, **EGIA SEGURUA**; **haurren EGIA** ekimen parte-hartzaile herrikoi bateratua gauzatu zen, *Gure haurrak*, *Egian*, *oinez ikastolara* lelopean. Egia auzoko mugikortasuna birpentsatzea proposatu zen jarduera honen bitartez eta erantzun ezin hobe jaso zuen. Lanegun askotan guraso, irakasle, neska-mutil, auzoko talde eta dendak indarrak batu zituzten proiektua aurrera eramateko eta bide seguruak eta bertan aurki daitezkeen lagunak adierazteko. Jarduerak, **Olatu Talka** jaialdian izan zuen azken hitzordua, festa handi batekin proiektuari amaiera eman baitzitzaion. Kaleak jendez gainetza izan ziren eta euren artean haurrak nagusi.

Bestetik, auzoko taldeek eta eragileek proposaturiko musika ekimenak babestu ziren: **Ttan Ttakun Irratia**, **Mojo Workin**, **Lurrazpiko Fest**, **Revolutionary Brothers** eta **Ez dok Amaitu**.

Donostikluba jaialdiari lotuta, kultur etxea eszenatoki handi bat bihurtu zen. Bi egunez, musika ikuskizunak eskaini ziren hainbat gunetan: liburutegia, terraza, korridoreak, erakusketa aretoa. Festa handi batekin bukatu zen Donostikluba: **Delorean**, **Crocodiles**, **Delorentos** eta **Ghost Culture** taldeen kontzertuekin.

Antzerkiaren esparruan, **Titzina Teatre**, **Cirque Kadavreski** eta **Manolo Alcantara** taldeen antzerki- eta zirku-proposamen garaikideek ikusleen babesa izan zuten. Egia Kultur Etxearen egitarauan eskaintza horrek geroz eta oihartzun handiagoa du ikusle gazteen artean, urtetik urtera sendotuz.

Euskal Antzerkiaren alorra nabarmentzekoa izan da, antzezlaren mailagatik eta jasotako erantzunagatik. Aipatzekoak, **Hika taldearen Gau Arabiarra** lan garaikidea, **Xentimorik Gaberen Putinen Guardasola** lana, Ramon Agirrerekin eta Inaxio Tolosarekin, eta **Huts Teatroaren Etxekoak** antzezlana; lau egunez antzokia lepo bete zuena.



EGIA SEGURUA; haurren EGIA



Olatu Talka



Etxekoak antzezlana

Egia Kultur Etxeak antzerki amateurraren aldeko apustua mantendu zuen 2015ean, **Gazteen Antzerki Topaketarekin** eta **Aitor Ikastolako Antzerki Astearekin**, bertan gazte donostiarrak, arte eszenikoen etorkizuna direnak, protagonista izan ziren.

Dantza, Egia Kultur Etxeko espezializazioetako bat da. Hortaz, bere garapenarekin jarraitu zen 2015ean, sentsibilizazioa eta sorkuntzaren babesa ardatz hartuta. Berriro, dantzari garaikide ospetsuenek Egia Kultur Etxean izan zuten hitzordua, tartean, **Sol Picó, Antonio Ruz, Thomas Noone, Damian Muñoz** eta **Virginia García**, azken biak La Intrusa konpainiakoak eta 2015eko Dantza Sari Nazionalaren irabazlea.

Dantza eta komunitatea batzen dituen **Dantzategia 3.0** antolatu zen 2015ean. **Jone San Martinek** eta **Amancio Gonzalezek** zuzenduta, koreografia berri bat sortu zen. Bestetik, **Mikel R. Nietoren** laguntzaz eta **Ttán Ttakun** Irratiarekin bat, soinu-espazioa landu ziren. Astebetez, sorkuntza eta ikuskizuna Egian bertan egin ziren, eta bizilagunek, auzora gerturatutakoek eta bertatik pasa zirenek dantzaz gertutik goatzeko aukera izan zuten.

Musikagelak, entsegu lokalen zerbitzuak, dinamika garrantzitsua garatu zuen 2015ean: ikastaroak, ikasgai magistralak, tailerrak eta abar. Nabarmentzekoa zuzeneko kontzertuetan soinua jartzeko ekipamenduak eta grabazio estudioak izan zuten harrera. Zuzeneko musika kontzertuetarako geroz eta areto gehiago dituen musika-zirkuituan jotzeko aukera eman zien talde berriei. Egian, **Le Bukowski, Dabadaba, La Taberna** eta **Apal Denda** aretoek parte hartu zuten zirkuitu horretan.

Euskararen Eguna, Korrika Kulturala, Porrontxo Jaiak eta Poltsiko Antzerkia eta Antzerkia Kalean jaialdiei esker kultur etxearen dinamika auzoko topagune ezberdinetara zabaldu zen.

Egia Kultur Etxeko erakusketa aretoek ondoko talde eta artisten proposamenak aurkeztu zituzten: **Asier Gogortza, Jorge Guerrero, Mikel Otxoteko, DANDAI** (tailerretako margolanak aurkeztuz), **ATZEGI** elkartearen **Beste begiradak** eta **Juan Torreraren Ukitzeko diren argazkiak**, besteak beste. Urtea amaitzeko, **Patxi Txikik** eta **Lourdes Elorzak** beren azken lanak aurkeztu zituzten.



Dantzategia



Walkman, Ganso & Cía



Rudo, Manolo Alcántara

Gaztelekua, gazteek duten espazioa, partekatzeko gune eta denbora-pasa proposamen erakargarria izan zen, auzoko nerabeentzat. Aktiboki parte hartu zuten antolatutako tailerretan eta hitzaldietan.

Kultur etxeak denetariko ikastaroak eskaini zituen: aire-dantza, zumba, jostintza, serigrafia, pilates, altzarien zaharberritzea... 500 lagundik gora joan ziren, astero, aipatuetako ikastaroetan parte hartzera.

Liburutegiak jarduera dezente antolatzen zituen: animazio eta irakurketa sustatzeko jarduerak, eskoletako bisitak, ipuinaren ordua, literatur dastatzea, eskrima tailerra edo literatur solasaldiak, besteak beste.

Azkenik, nabarmentzekoak, ATZEGIren laguntzarekin burutu zen **Irakurketa Erraza tailerra** eta Plus 55-ekin batera egin zen **Giza Liburutegia**.

Laburbilduz, Egia Kultur Etxeak dinamika aktiboa eta parte-hartzailea eskaini zuen 2015ean, elkarteekin, taldeekin eta kultur eragileekin batera lan eginaz.



Patxi Txiki eta Lourdes Elorza



Giza liburutegia

DATUAK

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	646	38.815
Antzerki	44	6.767
Dantza	37	6.596
Antzerki eta dantza entseiuak	158	922
Bideoa	20	659
Musika	30	10.249
Hitzaldiak	10	319
Ikastaroak eta tailerrak	73	1.195
Erakusketak	15	6.480
Elkarteen bilerak eta jarduerak	146	1.830
Aretoen alokairuak	13	2.164
Liburutegiko jarduerak	100	1.634
ZERBITZUAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	407	57.575
Liburutegiko bisitariak		38.137
Musikagela	32	5.920
Gaztelekua	117	3.912
Plus 55	85	961
Kzgunea		4.205
IT Txartela	172	1.680
Ikasaretoa	1	2.760

Erabilera publikoko ordenagailuen kopurua: **12**

**PRESTAKUNTZA
EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	60	766	24	284	36	482
2014/2015 ikastaroak	31	400	13	154	18	246
2015/2016 ikastaroak	29	366	11	130	18	236

**PRESTAKUNTZA
GIZONAK**

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	60	144	24	54	36	90
2014/2015 ikastaroak	31	86	13	35	18	51
2015/2016 ikastaroak	29	58	11	19	18	39

BISITARIAK guztira: **186.089**